# Hiriko GIDA




VITORIA GASTEIZ!
green capital




Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala. Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
Diseinua eta maketazioa: Línea Recta | Argazkiak: Erredehierro, Daniel Llano, Quintas fotógrafos,
Javier Agote, Iosu Izarra, Jaizki Fontaneda, César San Millán | Imprenta: Gráficas Dosbi. S.L |
Edizioa: 10. Data: 1 / 2020.

## Ongi etorri Vitoria-Gasteizera

Zure egonaldiak itxaropen guztiak gainditzeko ahal dugun guztia egin nahi dugu. **Almendraren** formako Erdi Aroko trazaduraren zati handi bat eta harresia kontserbatzen dituen ia milurteko hiria duzu zain. Erdi Aroko Vitoria-Gasteiz aurkituko duzu, baina baita hiri gotiko, errenazentista, neoklasiko eta modernoa ere.

Hiria «naturalki» da harrigarria. 42 metro karratu berdegune daude pertsonako, eta pasieran nahiz bizikletaz ibiltzeko, hegaztiak behatzeko edo zaldi gainean paseatzeko berrogeita hamar bat kilometro dauzkazu zain. Nazioartean aitortu da hiriak jasangarritasunarekin duen konpromisoa, EBren 2012ko **European Green Capital** saria, 2016ko **Biosphere Responsible Tourism Destination** ziurtagiria eta NBEaren 2019ko **Global Green City Award** saria jaso baititu.

Gainera, **ekintza-agenda** betea prestatu dizugu, gustu guztietarako zuzeneko kontzertu, jaialdi eta ikuskizunek lepo (magoak eta titiriteroak zein jazz edo rock musikariak).

Eta utziguzu eskaintzen **arabar gastronomiaren** platerik gozoenak, euskal sukaldaritza izenekoaren errezetarik sofistikatuenak eta gure **pintxo** famatuak. Aholku bat, dena askoz gozoago egongo da **Arabar Errioxako** mahastietako ardo on batez edo baso bat **txakolinez** lagundurik. Eta ez ahaztu XVIII. mendetik izen handia duten **gozokiak** dastatzeaz, eta bereziki, txokolateak, konfiturak eta marmeladak.

Eta denbora gehiago baduzu, inguruetara **eskapadatxoren** bat egitea ere gomendatzen dizugu, gatzaren haranean barneratu, ur-jauziren bat ikusi edo Erdi Aroko upeltegietara jaisteko.

Ez zaitugu gehiago berandutuko.
**Zure oinetara duzu hiria.**

*Ezagutu ezazu.*

## Aurkibidea


| | |
|---|---|
| Historia pixka bat | 04 |
| Mugitu zaitez hiritik | 08 |
| Ezagutu Vitoria-Gasteiz | 12 |
| Familiarekin etorri zara? | 40 |
| Erosketetan joan nahi? | 42 |
| Ezagutzen duzu geure gastronomia? | 44 |
| Gaur gauean irten nahi? | 46 |
| Kirolen bat egin nahi? | 48 |
| Pasieran ibili nahi? | 49 |
| Denbora gehiago daukazu? | 52 |
| Zer jakin behar duzun | 56 |
| Gida praktikoa | 58 |
| Planoa | 67 |








# Historia pixka bat...

## Erdi Aroko jatorriak

- Vitoria-Gasteiz ia milurteko hiria da. Nafarroako Antso VI.a erregeak sortu zuen, Gasteiz herrixka konkistatu eta Nueva Victoria izena jartzea erabaki zuenean.

- Baina bakarrik 19 urte beranduago, Gaztelako Alfontso VIII.a erregeak beraganatu zuen hiria. Errege berriak hiria handitu zuen muinoaren mendebaldean 3 kale berri eginez (Hedegile, Zapatari eta Errementari kaleak). 1202. urtean, hiribildua ia suntsitu zuen sute ikaragarria gertatu zen.

- 1256. urtean, Alfontso X.ak beste aldeko mendi-hegaleko 3 kaleak ireki zituen: Aiztogile, Pintore eta Judutegi kaleak.

- Hiriak azkar egin zuen aurrera, denbora luzez, Gaztelako Gortetik Europako iparraldera joateko bide laburrena Gasteiztik igarotzen zelako. Bideak aduana eta guzti zuen. Valentin Foronda ilustratzaile arabarraren arabera, XVIII. mende erdialdean, hiria "ia Europako nazio guztiak hornitzen zituen biltegia zen".

## XV. mendetik XVIII.era

- Biztanle-kopurua eta hiri-bilbea nabarmen aldatu ez baziren ere, XV. mendetik XVIII. era bitartean, hiriari ukitu monumentalagoa eman zioten jauregi (Montehermoso, Goiuri edo Eskoriatza-Eskibel) eta komentu berriak eraiki zituzten Carlos V.aren Gorteko kideek.

- 1443. urtean, beste sute ikaragarri bat gertatu zen Gasteizen, eta hiriko mendebaldea kiskali zuen. Ordutik aurrera harri eta pezozko etxebizitza berriak (zurezkoen ordez) eraikitzeko agindua eman eta kaleak harriztatzea erabaki zen.

- 1492. urtean judutarrak kanporatzea kaltegarria izan zen hirirako, eta gainbehera luzea ekarri zuen. Krisialdi ekonomikoak XVIII. mendean aurrera iraun zuen.

## XIX. mendea

- Mendea Frantziaren kontrako gerrarekin hasi zen. "Gasteizko Gudua" 1813ko uztailaren 21ean gertatu zen hiriaren ateetan eta Napoleonek Espainiatik ihes egin behar izan zuen bere armadak porrot egin ondoren.

- Mende honen inguruan adierazi behar da, orobat, Gasteizko aduana kostaldera eraman zela (1841. urtean), eta gertaera hori ezbehar handia izan zela tokiko ekonomiarentzat. Hala ere, hirugarren sektorearen (zerbitzuak) garapenaz leundu zuen hiriak efektu hori.

- Garai berri honetako ikurrak Vitoria Bankuaren inagurazioa (1864. urtean) eta trenbidearen helduera (Madril-Irun linea) izan ziren.

- XIX. mendean, hiria kultura gune garrantzitsu bilakatu zen. 1866an Ateneo erakundea eta 1869an Unibertsitate Librea irekitzearekin bat, literaturarekin eta artearekin lotutako talde desberdinak garatu ziren.

## XX. mendea

- Mendea aldatzean lehen lantegi modernoak sortu ziren. Industria-sektore gasteiztarrean erabateko norabide-aldaketa eman zen 1956etik 1975era bitartean, hirian 1.700 enpresa berri jarri baitziren. Gehienak, Mercedes Benz (1954) edo Michelin (1966) bezalako lehen multinazionalen inguruan bizi ziren familiarteko lantegi mekanizatu txikiak ziren.

- 1950. urtetik 1975.era hirukoiztu egin zen biztanle-korpurua eta auzo berriak sortu ziren.

- 1980. urtean, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko hiriburu izendatu zuen VG.

## XXI. mendea

- XXI. mendeko Gasteiz "berdea eta jasan-garria" izateagatik nabarmentzen da. Europar Batasunak **European Green Capital** izendatu zuen 2012an, **Biosphere Responsible Tourism Destination** ziurtagiria jaso zuen 2016an, eta Nazio Batuen Erakundeak **Global Green City Award** izendatu zuen 2019an.

- Gasteiz, gainera Espainian bizitza-kalitate onena duten lehen hiru hiriburuen artean dago. Gaur egungo Vitoria-Gasteiz "bizi-tzeko pentsatutako eta diseinatutako" hiria dela esan dezakegu.





## Kronologia *historikoa*



**1181**

Nafarroako Antso VI.ak Gasteiz sortu zuen.

**1199**

Antso VII.a Indartsua kanpoan zela, Alfontso VIII.ak Gasteiz inguratu zuen.



**1200**

Hiriak kapitulatu eta muga-babesa galdu zuen. Gastelako erresuman sartu zen.

**1431**

Juan II.ak hiri izendatu zuen Gasteiz.





**1483**

Gasteiz ia 300 urtez arautu zuten Ordenantzak onartu ziren. Gastelako Isabel erreginak erregalien zina egin zuen hiriaren atarian.

**1492**

Juduak hiritik bota zituzten eta Judimendi soroko kanposantua kontsejuari eman zioten.




Kordoi Etxea

**1522**

Utrecht-eko Adriano Kardinala Aita Santu izendatu zuten. Berria, Gasteizko Kordoi Etxean jaso zuen.

**1765**

Peñafloridako kondeak sustatutako Euskalerriaren Lagunen Elkartea sortu zen.







**1813**

Napoleonen armadak garaituak Gasteizko Guduan. Gertakari honen omenez, orkestrarako lan bat sortu zuen Beethoven-ek.

**1905**

Kontzertuen erregimena babesteko Foru Liga sortu zen.






**1980**

Eusko Legebiltxarrak Vitoria-Gastei aukeratu zuen Euskadi hiriburu izan zedin.

**1982**

"Europa Nostra" saria, hiriko Hirigune Historikoaren zaharberritze-lanagatik.





**1996**

Iraunkortasunaren hiri eredua Europa mailan.

**2005**

Hiri Berdeen deklarazioan esku hartzeko gonbit egin zion ONUk hiriari.





**2012**

"**European Green Capital 2012**" saria jaso du VGk.

**2016**

**Biosphere Responsible Tourism**-ek ematen duen Turismoko Helmuga Jasangarria ziurtagiria lortu zuen

BIOSPHERE
certified destination

# Mugitu *zaitez hiritik*






## Non utzi autoa hirira iristean

Lurpeko 10 aparkalekuren, aire zabaleko 11 aparkalekuren eta autokarabanentzako beste baten artean aukeratu behar duzu.

## AUTOZ

**Kontuan izan erdigunean TAO gunea dagoela:**

- Lehen 15 minutuetan TAO gunea doakoa da.
- Gehienez ordu eta erdiz aparkatu daiteke Parkimetroan tiketa igorri eta auto barruan utzi behar da.
- Ordainketa birtuala: Zure smartphonearekin ordaindu dezakezu "telpark" aplikazioa erabiliz (https://www.telpark.com/).
- Aniztasun funtzionala duten pertsonek (dagokien identifikazio-txartelarekin) doan aparkatu dezakete tiketik atera gabe.

**4 aparkaleku mota daude TAO gunean:**

- **Marra urdina:** gehienez 90 minutu (oso erdigunean dauden aparkalekuak).
- **Marra berdea:** gehienez 90 minutu (merkeagoak).
- **Marra berde argia:** egoiliarrak diren pertsonak bakarrik aparka dezakete.
- **Marra laranja:** errotazio handia. Gehienez 15 minutu.

**Ordutegiak eta aplikazio egunak:**

- **Astelehenetik ostiralea:** 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- **Larunbatean:** 10:00etatik 14:00etara. Igande eta jaiegunetan ez du funtzionatzen. Abuztuaren 5etik 31ra biak barne.

**Adi: Erdi Aroko hirigune osoan egoiliarrek baino ezin dute aparkatu,** aparkalekuak ezein kolorez margotuta ez egon arren.




## TAXIA

Taxi zerbitzua 24 orduz dago irekita.

Flotaren %10a aniztasun funtzionala duten pertsonentzat egokituta dago.

Taxi geltokiak daude erdigunean eta hiriko auzoetan (ikus mapa), baina normalena telefonoz deitzea da hirian dauden bi konpainiei deitzea:

- **Radio Taxi Gasteiz:** 945 273 500.
  SMS zerbitzua, entzumen-dibertsitatea duten pertsonentzat: 660 034 833.
- **Grupo Celedón:** 945 272 000.

## BIZIKLETAZ

Gasteiz so laua denez, hirigune Historikoa izan ezik, mendixka batean dago eta, hiria eta inguruko Eraztun Berdea ezagutzeko modu onena bizikletaz egitea da. 160 km baino gehiago daude bide-gorrian ibiltzeko. Turismo Bulegoan lor dezakezu bizikletan ibiltzeko ibilbideei eta bizikletak **alokatzeko tokiei buruzko informazio gehiago.**

# Tranbia-lineak





## TRANBIAZ

- Sareak **bi linea** ditu gaur egun: Ibaiondo-Angulema eta Abetxuko-Angulema, zeinek bost geraleku partekatzen dituzten hiriaren erdialdean (Angulema-Honduras tartean).
- Tranbian igo baino lehenago geltokietan dauden makinetan erosi behar dira tiketak. 5 urtetik beherako pertsonek doan bidaiatuko dute.
- Geltokiak eta tranbiaren unitateak aniztasun fisikoa duten pertsonentzat prestatuta daude.
- Tranbian bizikleta eraman daiteke. Baita etxe-abere bat ere, lotuta badago eta arriskutsua edo gogaikarria ez bada.
- Informazio gehiago: **www.euskotren.eus/tranvia**

| | Ordutegiak - Maiztasunak | | |
|---|---|---|---|
| IRTEERAK | BIDAIAK | LEHEN TRANBIA | AZKEN TRANBIA |
| Abetxuko* | 15 minuturo, egunaren zatirik handienean | 6:04 h. | 22:34 h. |
| Ibaiondo* | 15 minuturo, egunaren zatirik handienean | 6:00 h. | 22:45 h. |
| Angulema* | 7,5 minuturo, egunaren zatirik handienean, Abetxuko eta Ibaiondorako jomugak txandakatuz | Abetxukora: 6:23 h. Ibaiondora: 6:31 h. | Abetxukora: 22:51 h. Ibaiondora: 23:11 h. |
| LARUNBAT ETA JAIEGUNETAN | Zerbitzua 30 minutu beranduago hasten da Ibaiondo eta Anguleman eta 45 minutu beranduago Abetxukon. | | |

* Angulema-Honduras tartean, biadiak 7,5 minuturo izaten dira, norabide bietan.

## AUTOBUSA

- Herriko autobus-sareak honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkizu:

### Eguneko zerbitzua

10 autobus linea daude, 10 minutuko maiztasunarekin 6:00etatik 23:00etara hiriko edozein puntutara heltzeko.

### Gaueko zerbitzua (Gautxori)

5 autobus linea gauean, ostiraletan, larunbatetan eta jaiegunetako bezperetan. 00:00etatik 7:00etara, 30 minutuko maiztasunarekin.

### Linea bereziak

**Buesa Arena linea.** Zerbitzu berezia Buesa Arena Pabilioira Baskoniako partidatarako (Saskibaloia ACB Liga).

Zerbitzu Berezia **Mendizorrotza futbol-zelaira**. Deportivo Alavés-en partidak (Futbola. Lehen maila)

Zerbitzu berezia **Foronda Aireportura**.

- Txartela autobusean bertan atera daiteke, esku-dirutan ordainduta edo Bat edo Mugi garraio-txartelak erabilita.
- Autobusen %100a irisgarriak dira mugikortasun, entzumen eta ikusmen zailtasuna dituzten pertsonen bidaia errazteko.
- Markesinatan linea bakoitzari buruzko informazioa duten mapak daude, baita QR kodea ere, helmugari, geltokiei eta itxaron beharreko denborari buruzko informazioa lortzeko.
- Informazio guztia: **www.vitoria-gasteiz.org/tuvisa**

# Ezagutu Vitoria-Gasteiz



# Zure kabuz



01. Almendrako ibilbidea



02. 4 dorreen ibilbidea



03. Jauregi errena-zentisten ibilbidea



04. Erdialdeko ibilbidea



05. Ibilbide erromantikoa



06. Sendako ibilbidea



07. Donejakue Bidearen ibilbidea



08. Lorategien ibilbidea



09. XXI. mendeko VG ibilbidea

# Jarraitu gidariari



# 01. Almendrako ibilbidea



Espainia Plaza eta Erdi Aroko hirigunea



1 ABIAPUNTUA: **Andre Maria Zuriaren plaza**

## Aihotz plaza

Hiriko antzinako ordezkariek aihotz baten gainean egiten zuten beren karguen zina, eta, hain zuzen ere, aihotz horri zor dio plazak izena. Bada, **San Migel** elizaren kanpoaldeko absidean ikus daiteke armaren erreplika (plaza ixten duen absidean). Begiratu iezaiozu gaur biltzarretarako egoitza den **Goiuri jauregi** ederrari (1542). Bertako balkoi-galeria eta iparraldeko fatxadan dagoen Salinatarren heraldika nabarmentzen dira.

## 2 Arkupeak

Sinbolo neoklasiko hau Justo Antonio Olagibelen lana izan zen, eta Erdi Aroko hiriaren eta zabalgune garaikidearen arteko malda saihesteko eraiki zen. Bi tarte dauzkate: Hegaleko arkupeak eta Judizioko arkupeak.


Aihotz plaza


Arkupeak

## 3 Kordoi etxea

Sarrerako arkuan azaltzen den frantziskotarren kordoiagatik hartu zuen izen hori. XV. mende amaierako jauregi honek XIII. mendeko Erdi Aroko dorrea gordetzen du, izar-itzurako ganga ikusgarriarekin.


Kordoi etxea

## 4 Arrieta-Maeztutarren jauregia

Bendaña jauregia ere esaten zaio, eta XVI. mendearen hasieran eraiki zuten, Erdi Aroko dorre baten inguruan. Begiratu dorre zilindrikoari eta arku hirukoitzak dauzkan barrualdeko patioari. **Karten Fournier Museoa** dago bertan, **Bibat** museoaren barruan.

## 5 Santa Ana kantoia

«Zeru eta izarrez estalita» izeneko horma-irudia ikusi ahalko duzu hemen, hots, Santa Anak San Joakini eman zion musuaren interpretazio modernoa. "Hiri margotua" **muralen ibilbidearen** adibide bat da hori.

## 6 Gurutze Santuaren komentua

Sortu zenetik (1547) bizi dira bertan klausurako moja dominikanoak, eta Pasioaren monumentu-eszena aurki daiteke atarian.

# 01. Almendrako ibilbidea

## 7 Gobeo-Caicedotarren etxea

Herreraren Barrokoaren adibiderik argienetakoa da, eta, bertako fatxadan, bolekin apaindutako balkoiak, hegal-erlaitza eta Hurtado Mendozatarren armarri handia gailentzen dira.

## 8 Kristo Santuaren kapera

XIV. mendeko tailu gotiko zoragarria gordetzen du barruan, **San Ildefontsoren Kristoa**, zeinak debozio handia piztu baitzuen Santiago bidea egiten zutenen artean.

## 9 Santa Maria Katredala

Hiriko tenplu enblematiko hau XIII. mendekoa da, eta muinoaren tokirik garaienean dago; bada, hiriaren historia gordetzen du bere harrietan. Tenpluaren zaharberritze-prozesua jendeari irekita egon da, besteak beste Ken Follet edo Pablo Coelho idazleen inspirazioa izan den eraikinaren sekretuak ezagutzeko aukera emateko.

**Bisita gidatua** guztiz irisgarria eta oso gomendagarria da.

Informazio gehiagorako: 945 255 135.

## 10 Eskoriatza-Eskibel jauregia

1530aren eta 1541aren artean eraiki zuten, eta Gasteizko Errenazimenduko pieza giltzarria da.

## 11 Montehermoso jauregia

1520an eraiki zuten jauregi errenazentista hau, eta monarkiari ostatu emateko erabili zen, hiria bisitatzera etortzen zenean. Halaber, apezpiku-egoitza izan zen, eta, gaur egun, abangoardiei zuzenduriko kultura-zentroa da.

## 12 Harresia

XI. mendean eraiki zuen Nafarroako Antso IV.a erregeak, eta Gasteizko herrixka gotortu zuen. Antzinako harresiaren zati batean ibil zaitezke, eta horma-atalaren tarte bat nahiz dorreetako bat behatu.

**Jaso ezazu bisita gidatuei buruzko informazioa Turismo Bulegoan.**

## 13 San Pedro eliza

XIV. mendean hasi ziren eraikitzen, XIII. mendeko parrokia baten gainean, harresiari atxikita. Euskadiko eskultura-multzoen artean, nabarmenenetako bat da eliza honen antzinako aurrealdea (Errementari kalea).

## 14 Iruñatarren dorretxea

**Otxanda Andrearen dorre** gisa da ezagunagoa, eta XV. mendearen hasierako etxe gotorra zen. XVI. mendean berreraiki zuten, eta dorrea 1970ean gaineratu zioten. Gaur egun, Natura Zientzien Museoaren egoitza da.


Santa Maria Katedrala


Eskoriatza-Eskibel jauregia


San Pedro eliza

## 15 Alamedako Markesaren etxea

1731ren eta 1735aren artean eraiki zuten, eta estilo barrokoko jauretxea da. Begiratu iezaiezu arkitektura-motiboak imitatzen dituen dekorazio piktoriko bitxiari eta eraikinaren izkinako armarri handiari.

## 16 Alaba-Eskibel jauregia

XVI. mendekoa da, eta askotan birgaitu dute; hala ere, Alabatarren, Mendozatarren, Miñanotarren eta Eskibeldarren lau armarriak kontserbatzen ditu oraindik.

## 17 Farolen museoa

Museo berezi honetan gordetzen dira Andre Maria Zuriaren jaien harira duela 100 urtetik baino lehenagotik abuztuaren 4ko prozesioan eramaten diren beira polikromatuzko 271 pieza ederrak.

## 18 Buruileria plaza

Erdi Aroko nekropoli zaharra da, eta izen hori eman zioten, antzina oihalak eta zapiak saltzen baitzituzten bertan; izan ere, garai hartan, "buruileria" esaten zieten toki horiei.

## 19 Portaloia

XV. mendearen amaierako eraikin hau merkatarien ostatua izan zen, eta sekulako atea zeukan sarreran, gurdiak sartzeko. 1957an zaharberritu zuten, eta, gaur egun, jatetxea da.

## 20 Andatarren dorrea

XV. mendean altxatu zuten, eta Gasteizko eraikuntza zaharrenetako bat da. Hiriko babes-sistemaren zati izandako eraikin gotikoa da.


Farolea museoa


Andatarren dorrea


Buruileria plaza

## 02. 4 dorreren ibilbidea






1 ABIAPUNTUA: **Santa Maria Plaza**

## Santa Maria Katedrala

*(Santa Maria plaza)*

Gizadiaren ondare izendatutako katedral hau XIII. mendean eraiki zuten, Gasteizko herrixkako eliza primitiboaren hondarren gainean.

Hiriko defentsarako gotorlekua izan zen (murruek 20 metroko altuera dute), eta, historian zehar, esku-hartze ugari egin dira bertan. 2000tik 2016ra bitartean egindako zaharberritze-lanak jendeari irekita egon ziren, katedral zaharraren sekretuak agerian jartzen zituen bisita-programa batekin.

Informazio gehiago: **www.catedralvitoria.eus**

2

## San Bizente Martiriaren eliza

*(San Frantzisko aldapa)*

Hiribilduaren hego-ekialdea babesten zuen gaztelu-gotorleku zaharraren zati bat hartzen du. Dorrera igo eta tenpluko nabeen gaineko zurezko bilbearen zati batean ibili behar duzu.

Kontsultatu **"In situ bisitak"** programa Turismo Bulegoan.

3

## San Migel Goi Aingeruaren eliza

*(Andre Maria Zuriaren plaza)*

Hiriko elizarik zaharrena da (1181. urtean forua eman ziotenean aipatzen da, jada). Ezinbestekoa da Andre Maria Zuriaren, Vitoria-Gasteizko zaindariaren, kapera bisitatzea, eta bertan, XIX. mendearen erdialdeko tailu polikromatua ikustea.

4

## San Pedro Apostoluaren eliza

*(Errementari kalea)*

Espainiako tenplu gotiko ederrenetariko bat da, eta monumentu historiko-artistiko nazional izendatu zuten. Hiriko behe-harresiari atxikita eraiki zen, eta, beraz, defentsa-lana ere egin zuen. Begiratu XIV. mendeko atari gotiko zaharrari, zeinera Errementari kaletik sar zaitezkeen.



San Bizente elizako dorrea



San Migel balkoi korritua eta San Bizenteko dorrea

# 03. *Jauregi errenazentisten* ibilbidea



Goiuri jauregia



1 ABIAPUNTUA: **Aihotz plaza**

## Goiuri jauregia

*(Aihotz plaza)*

Martin Salinas Karlos V.aren enbaxadoreak sustatu zuen eraikin errenazentista eder hau (1538), eta, gaur egun, biltzarrak egiteko egoitza da. Antzinako harresiaren zati bat gordetzen du egituran. Areto nagusia Bruselako eskolako tapiz flandestar batekin apainduta dago. XVI. mendekoa da, eta Troiako Eneasen ihesaldia kontatzen du. Kontsultatu bisita gidatuen programa webean eta Turismo Bulegoan.

## 2 Montehermoso jauregia

*(Frai Zacarias Martinez kaleko 2. zenbakia)*

Ortuño Ibañez Agirre Karlos V.a enperadorearen aholkulariak eraiki zuen 1520an, eta, hainbat mendez, gorteko kideentzako ostatua izan zen, hirian geldialdia egiten zutenenerako. XIX. mendean, Montehermosoko markesaren eta Jose Bonaparteren arteko amodio-kontuen agertokia izan zen.

Ondoren, apezpiku-egoitza izan zen, eta, gaur egun, abangoardiei zuzenduriko kultura-zentroa da. Eraikinari atxikita, antzinako urbiltegia dago, erakusketa-areto gisa erabiltzen den toki berezia.


Montehermoso jauregia


Bendaña jauregia

## 3 Eskoriatza-Eskibel jauregia

*(Frai Zacaria Martinez kaleko 3, zenbakia)*

Fernan Lopez Eskoriatza Karlos V.a enperadorearen gorteko medikuak agindu zuen jauregi errenazentista hau eraikitzea. Fatxada nagusiko atari platereskoa nabarmentzen da, eta, bertan, jabearen eta Victoria Anda Eskibel emaztearen bustoak ikus daitezke. Barrualdeko patio ezaguna «maitasunaren patio» gisa da ezaguna.

## 4 Bendaña jauregia

*(Aiztogile kaleko 54. zenbakia)*

1525eko jauretxea da, eta aurreko dorretxe baten gainean eraiki zuten. Bertan, dorre zilindrikoa eta barrualdeko patioko hiru solairuko arkuak nabarmentzen dira.

Gaur egun, **Bibat eraikinaren zati da; hots, Arkeologia eta Karten Founier Museoa**ren parte.

# 04. Erdialdeko ibilbidea




ARTIUM, Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa



1 ABIAPUNTUA: **Eusko Legebiltzarra**

## Eusko Legebiltzarra

Santa Klara komentua izandakoaren orubean dago, eta, 130 urtez, hiriko Erdi Mailako Irakaskuntza Institutua izan zen.

XIX. mendean eraiki zuten, komentu zaharraren materialak erabilita.

## 2 Maria Sortzez Garbiaren katedrala (Katedral berria)

Estilo neogotikoa du, eta eraikitzeko lehen proiektua 1907an egin zen. **Erlijio Artearen Museo Diozesiarra** dauka barruan.



Maria Sortzez Garbiaren katedrala



Espainia plaza

## 3 Probintzia jauregia

Arabako Foru Aldundiaren egoitza da. Hasiera batean, behe-solairua baino ez zeukan. 1858an, karlistaldiaren ondoren, goiko atala gaineratu zitzaion.

## 4 Andre Maria Zuriaren plaza

Erdi Aroko merkatuaren plaza izan zen, eta hiriko gune nagusia da. **Gasteizko guduaren monumentua** topa dezakegu bertan, zeinak 1813ko uztailaren 21ean Napoleonen tropak garaitu izan oroitzen duen. Halaber, Gasteizko landare-eskultura dago, "hiri berdearen" ikurra.

## 5 Espaina Plaza

Arkupedun plaza hau Justo Antonio Olagibel arkitekto gasteiztarraren zuzendaritzaren pean eraiki zen 1781aren eta 1790aren artean, harresietatik kanpo azokak eta jaialdiak egiteko esparrua falta baitzen. Hementxe daude udaletxea eta Turismo Bulegoa

## 6 Foru plaza

1982an inauguratu zuten, eta Peña Gantxegi arkitektoak Txillida eskultorearekin batera Foruei buruzko 1876ko Legearen mendeurrena oroitzeko xedez egindako proiektua da.

## 7 Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa

Euskal Herriko eta Espainiako arteen bilduma handia dauka, 3.000 artelanetik gorakoa, baita erakusketa programa garrantzitsua eduki ere. baita erakusketa programa garrantzitsua ere.

# 05. Ibilbide erromantikoa



Pando Argüelles etxea





Arka plaza



Eduardo Dato kalea

1 ABIAPUNTUA: **Dato Kalea**

## Eduardo Dato Kalea

Gasteizko zabalguneko kale garrantzitsuena eta hiriko merkataritza-arteria da. Fatxadetako beirazko miradoreek xarma berezia ematen diote. Behatu Gasteizko Bankua 1928an eraikia (1 zk.), Arrieta Etxeetan (2. zk) eta Caja Laboral Kutxako eraikinean 1870ekoa, Café Suizo kafetegia zena.

## 2 Arka plaza

Bankoa (Dorretxe zaharren antzerakoa) eta Santander Bankuko eraikinak nabarmentzen dira (ukitu erromantikoa duten Erdi Aroko elementuekin nahastuta) Ibiltaria brontzezko eskultura (Juanjo Eguizabalena) hiriko ikono bat da.

## 3 Pando-Argüelles etxea *(San Antonio kaleko, 41)*

Julian Apraiz arkitekto modernistaren lana da (1911), eta kupula urdin deigarriak egiten du berezi.

## 4 Musika Etxea *(San Antonio Kalea)*

Jatorrizko eraikinetik (1880) fatxada eta lehen hormartea mantentzen ditu.

## 5 Gobernu Zibila *(Olagibel kaleko 1-15)*

San Frantzisko komentua zegoen orubearen gainean eraiki zen 1930ean.

## 6 Foru plaza

1981ean eraiki zuten monumentu-multzo hau, foruen omenez. Peña Gantxegi arkitektoaren eta Txillida eskultorearen proiektua da. Herri-kirolen erakusketak eta kultura-jarduerak egiteko dago diseinatuta. Elkar topatzeko eta aisialdirako toki bihurtu da. Harresi antzerako batek inguratuta, Txillidaren Foruen eskultura dago.

## 7 Printzipal Antzokia *(San Prudentzio kaleko 29)*

1917an eraiki zen. Cesáreo Iradierrek diseinatu zuen, estilo italiarra du eta Madrilgo antzokitik hartu zuen inspirazioa.

## 8 Fournier etxea *(Manuel Iradier kaleko 46)*

Eraikin honetan (1866) kokatu zuen Heraclio Fournierrek bere lehen karta-fabrika. Goratutako bobeda handia eta Napoleon III.aren Pariseko estiloko txapitulak ditu.

## 9 Geltoki plazatxoa

Trena iristean hiriak eraldaketa ikaragarria jasan zuen XIX. mendean. Gaur egungo eraikina 1929koa da.

# 06. Sendako ibilbidea


Senda ibilbidea





Florida



Zuloaga etxea

1 ABIAPUNTUA: **Andre Maria Zuriaren plaza**

## Andre Maria Zuriaren plaza

Erdi Aroko merkatuaren plaza izan zen, eta hiriko gune nagusia da gaur. Gasteizko Guduaren monumentuak 1813an Napoleonen tropak garaitu izana oroitzen du. Halaber, hiriaren izena jasotzen duen landare-eskultura topa dezakegu hemen, Gasteizen jarrera berde eta jasangarriaren ikurra hori.

Abuztuaren 4 guztietan milaka pertsona biltzen dira Zeledonen jaitsiera ikusteko. Zeledon Andre Maria Zuriaren omenez egiten diren jaiei hasiera ematen dien pertsonaia da.

## 2 Florida

XIX. mendeko bidaiaren eta espedizio handien interesak, Floridakoa lorategi botaniko bihurtzera bultzatu zuen hiria. Helburu honekin, Gazteizko agintariek gaur egun parkean dauden zuhaitz exotiko gehienak erosi zituzten 1855. urtean Parisko Erakusketa Unibertsalean.

## 3 Zulueta jauregia *(Senda ibilbideko 2. zenbakian)*

Jauregi hau Senda ibilbidean aurkitzen da, ehun urte baino gehiagoko platanondoz eta XIX. mende amaierako etxez inguratutako ibilbide ederra, hain zuzen. 1902an eraiki zuen hotel-etxe funtzioarekin Kuban aberastutako Alfredo de Zulueta lur-jabeak. Lorategia publikoarentzat irekita dago.

## 4 Zuloaga etxea *(Senda ibilbideko 15. zenbakian)*

1901ean Julio Saracibar arkitektoak eraikitako eraikin ederra. Errotonda errematatzen duen linterna ez zegoen jatorrizko proiektuan.

## 5 Buruko minen etxea

*(Frai Francisco Vitoria ibilbideko 2. zenbakian)*

Izen hori dauka fatxada nagusia apaintzen duten atlanteen jarreragatik. 1901ean eraikita Julio Saracíbararkitektoaren lana da baita ere.

# 06. Sendako ibilbidea

## 6 Arma Museoa *(Frai Francisco Vitoria ibilbideko 3)*

Hiriko ale altuko indusketetan aurkitutako Erdi Aroko armak behatu daitezke. Ikusi baita ere XVI. mendeko armadura bilduman dauden arma afrikar eta japoniarrak ere. Gasteizko guduari (1813) eskainitako espazio interesgarri bat du. Gudu horretan egin zuen Porrot Napoleonen armadak.

## 7 Sofía etxea *(Frai Francisco Vitoria ibilbideko 6)*

Xehetasun morisko eta indiarrak dituen jauregi ederra da, Julio Saracíbar arkitektoak eraikia 1902an.

## 8 Ajuria Enea jauregia

*(Frai Francisco Vitoria ibilbideko 5)*

Gaur egun Lehendakariaren etxebizitza da, estilo erregionalista duen eraikina da, 1920an eraikia.

## 9 Arte Ederren museoa

*(Frai Francisco Vitoria ibilbideko 8)*

Agustin-Zulueta jauregia 1902an eraiki zen etxebizitza partikular gisa. Gaur egun 1850-1950 tarteko euskal arteari eskainitako museoa da. Gainera XVIII. eta XIX. mendeetako Espainiako arte bilduma bikaina du.

## 10 San Prudentzio

Arabako patroiaren eskultura Armentiako sarrerako arku baten azpian kokatzen da, bertan jaio baitzen santua.

## 11 Armentiako San Prudentzioren basilika

Euskadiko tenplu erromaniko enblematikoenetakoa da (XII. mendea). Apirilak 28, San Prudentzio egunean, erromeria herrikoi garrantzitsua ospatzen da.



Amagintza museoa



Ajuria Enea jaureguia



Arte Ederren museoa

# 07. Donejakue Bidearen ibilbidea



Santa Maria katedrala




Ezagutu Vitoria-Gasteiz

1 ABIAPUNTUA: **Santiago kalea**

## Santiago kalea

Kaleak 1420an santuaren izenpean eraikitako Erdi Aroko ospitaleari zor dio izena. Gaur egungo ospitaleak ere Santiago izena dauka, eta 1820an inauguratu zuten.

## 2 Errege Atea eta Barnekale berria

*(judutegi zaharra)*

Kale honen izenak, Carlos V.a emperadoreak 1524. urtean hirira egindako bisitarekin du zerikusia.

## 3 San Ildefonso Kristoa

Barnekale Berria amaieran dagoen kapera txiki batean aurkitzen da erromesek debozio handiz miresten zuten XIV. mendeko tailu gotiko bikain hau.

## 4 Santa Maria Katedrala

XIII. mendean eraikitzen hasi zen tenplu honetako bisita gidatua derrigorrezkoa da hiriko historia ulertzeko eta Santiago apostoluarekin lotutako zenbait xehetasun daudelako bertan.

Katedralaren alboan Andre Maria Parrokia dago, Santiagoren antzinako kapera zen eta santuaren zenbait irudikapen daude bertan.

## 5 Eskoriatza-Eskibel jauregia

Estilo platereskoko jauregi errenazentista honetan patio ederra nabarmentzen da (ez du bisitarik onartzen). 1530 eta 1541 artean eraiki zen, Carlos V. a emperadorearen medikua izan zen Ferrán Lopez de Eskoriazak aginduta.

## 6 Montehermoso jauregia *(kultura-zentroa)*

XVI. mendeko jauregi errenazentista hau (1520) errege-erreginen eta haien ahaideen ohiko ostatua izan zen hiria bisitatzera etortzen zirenean. XIX. mendean, Montehermosoko markesaren eta Jose Bonaparteren arteko amodio-kontuen agertokia izan zen.

Gaur egun, Montehermoso Kulturunea da, eta arte nahiz pentsamendu garaikidea erakusteko eta hedatzeko gunea da. Lurpean, hiriko ur-biltegi zaharrarekin (1885) lotuta dago, zeina erakusketa-gune berezia den gaur egun.



Eskoriatza-Eskibel jauregia



Burulleria plaza

# 07. Donejakue Bidearen ibilbidea

### 7 San Pedro elizako ataria

Monumentu historiko-artistiko Nazionala den XIV. mendeko tenplu honetan harriz landutako tailu baliagarriak daude Atari Zaharrean, horien artean Santiago erromesaren irudikapen eder bat.

### 8 Probintzia jauregia

Arabako Foru Aldundiaren egoitzak estilo neoklasikoa du, eta Martin Saracibarren lana da (1833). Plazan, foruen defendatzaile izandako Mateo Morazaren estatua dago.

### 9 Andre Maria Zuriaren plaza

Harresitik kanpo, Vitoria-Gasteizera eta merkatuko plazara sartzeko sarrera nagusia izan zen. Erdigunean Gabriel Borrás-en Gasteizko Gudua monumentua (1917) kokatzen da.

### 10 Loma Jeneralaren plaza - San Antonio komentua

1622. urteko eraikin hau, apaindurez gabetutako Barrokoaren adibide baliotsua da.

### 11 Eusko Legebiltzarra

Pantaleon Iradierrek eraiki zuen 1853an, Erdi Mailako Irakaskuntza Institutua izan zedin, oso garrantzitsua baitzen hiriko giro intelektualean. 1982tik, Eusko Legebiltzarra dago bertan.

### 12 Florida Parkea

Lorategi erromantiko ederra Pariseko lorategien moduko diseinuarekin (1820) eta 1856an handitua, mundu osoko zuhaitzen espezie askorekin.

### 13 Senda ibilbidea

Ehun urtetik gorako platanondo altuen eta XIX. mendearen amaierako jauregien arteko ibilbide ederra da; besteak beste, Zuluetatarren jauregia eta jendeari irekitako lorategia daude bertan.

### 14 Frai Francisco Vitoria ibilbidea

Frai Fransciscoren (Gasteizen jaio zen, 1486.urtean) omenezko eskultura hartzen duen glorieta batek indigaztainondo zoragarriez inguratutako ibilbidea mozten du. Frai Francisco legelari bikaina eta Nazioarteko Zuzenbidearen sustatzailea izan zen.

### 15 Armentiako Basilika

Ibilbidearen amaieran, San Prudentzioren basilika erromanikora iritsiko gara, Armentian. XII. mendean eraiki zuten, eta XVIII. mendean



Santa Maria katedraleko giltzarria



Estibalizko Andre Mariaren Santutegia

birgaitu. Erdi Aroan, Arabako zentro espirituala izan zen. Herri berean, San Prudentzio Arabaren zaindaria jaio zen (VI. mendean), eta haren omenezkoa da basilika.

## 16 Erromesaren ibilbidea

Duela gutxi inauguratu zen, Donejakue bidea egiten duten erromesei agur esateko. Harantzago Gometxa, Subilla Gasteiz, Argantzun,... daude Frantsezbidearekin elkartu arte.

## Donejakue Bideari buruzko informazio gehiago:

**Arabako Donejakue Bidearen Lagunen Elkartea**

Zapatari kalea, 85. Telefonoa **945 144 794**.

Irekita: Asteartea eta osteguna 18:30etik 20:30era.

## Arte Erromanikoa Interpretatzeko Zentroa Araban

Euskadiko erromanikoko bitxia den Estibalizko Andre Mariaren Santutegiaren alboan, Vitoria-Gasteiztik 10 kilometro eskasetara. Aretoetan Erdi Aroko estilo artistiko honen ezaugarriak eta Arabako Lurralde Historikoan duen presentzia miretsi daiteke.

Sarrera doan. Irekita: Igandeak 11:00etatik 13:30era.

Beste bisitetarako, kontsultatu:

**contacto@alavamedieval.com**


Armentiako basilika

# 08. Lorategien ibilbidea





1 ABIAPUNTUA: **Florida**

## Florida parkea

Parke erromantiko nagusia, XIX. mende amaierako lorategi frantsesen estilora diseinatu zen. Hiriko lorategi enblematikoena da, non ehun urtetik gora dituzten 95 zuhaitz espezie desberdin dauden. Iratze hostoa duen Pago ikusgarriaren aurrean gelditu zaitezke (parkeko bitxietako bat), Idi-bihotz Arbola ikusgarria (40 metro baino gehiagoko altuerarekin) edo Intxaurrondo beltzaren alboan. 140 urterekin Vitoria-Gasteizko zuhaitz zaharrenetakoa da.


Maria Sortzez Garbiaren katedrala


Florida parkea

## 2 Maria Sortzez Garbiaren katedrala

Florida parkearen alboan, Katedral Berriko girolaren zati bat inguratzen du. Bertan eskultura bitxiak daude, errinozeronte erraldoi bat eta krokodilo handi bat Koko Rico eskultore gasteiztarraren lanak.

## 3 Zulueta Jauregiko lorategiak

Sendako ibilbideko ehun urteko platanondo erraldoietan zehar goazela 1903an Fausto Iñiguez de Betolatza arkitektoak eraikitako jauregi honetako lorategiekin egingo dugu topo. Kontsultatu bisitatzeko ordutegia Turismo Bulegoan.

## 4 Augusti Jauregiko lorategiak

Etxea eta 1.200 m$^2$ baino gehiagoko lorategi ikusgarria Ricardo de Augustik sustatu zituen 1912 eta 1916artean, Javier de Luque eta


Jardín Vertical

Julián de Apraiz arkitektoen zuzendaritzapean. Orain Arte Ederren museoko egoitza da.

## 5 Prado parkea

Antzinako larrea etxeko-animalien bazkarako (XII. mendea), ordutik naturaz gozatzeko espazio bilakatu da eta gaur egun, jendeak korrika egiten joateko erabiltzen du.

## 6 Europa Biltzar Jauregiko lorategi bertikala

Erreferentziazko eraikina jasangarritasunari dagokionez, Passivhaus XXL ziurtagiria lortu zuen Espainiako lehen kongresu-zentroa izan zen egin zioten berrikuntza eko-arkitektonikoa eta gero.Jauregi honetan arreta gehien ematen duena fatxada osoa estaltzen duen lorategi bertikal ikusgarria da zalantzarik gabe. Lorategia landatzeko Arabako eta Euskadiko landaren barietate anitzetako 33.000 landare baino gehiago erabili ziren.

# 09. XXI. mendeko VG ibilbidea



Zabalgana



## 1 Lakua

Hiriaren iparraldean kokatuta, Vitoria-Gasteizko hiri-espazio handienetakoa da. Tranbiaren 2 lineek konektatzen duten hirigunearekin eta izaera propioa duten bi auzotan banatzen da: Lakua-Arriaga eta Lakua-Sansomendi.

Hemen aurkitzen dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza, Arriagako Parke handia, autobus geltoki berria eta ekipamendu handiak: 2 gizarte-etxe, kirol-instalazioak, Parkour gune bat, haurrentzako joko eremu handia (itsasontzi pirata batekin). Baita autokarabanak kokatzeko lekua ere.

## 2 Zabalgana

Vitoria-Gasteizko azken mendean eman den hiri-garapeneko beste auzo garrantzitsuetako bat. Hiribide handiak, egurrezko pasabideak Ali erreka lehorraren ibilguaren gainean eta interes arkitektonikoa duten eraikin berriek definitzen dute auzo hau. Izen bera duen Parkeak, hots Zabalgana, Eraztun Berdea osatzen duten 6 espazioetako bat da. Bertan baso natural bat aurkituko duzu erkametzekin, belardiekin, aintzira txikiekin eta ikuspegi ederrak dituzten muinoekin.

## 3 Salburua

Hiriaren azken hedapen nukleo handia Salburuako Hezegunearen parke ondoan kokatzen da. Uretako hegaztiak, anfibioak eta landare espezie anitzak dituen ekosistema duen espazio naturala. Eraztun Berdea osatzen duten 6 parkeetatik ezagunena da. Bertan aurkitzen da parkeko interpretazio zentroa, Ataria, non urtean zehar jarduera ugari gauzatzen diren. Oso gertu Baskoniaren egoitza den Buesa Arena Saskibaloi Pabilioia aurkitzen da.


Zumaia plaza


Zabalganako


Salburuako ibilbidea



# Jarraitu gidariari

**Turismo Bulegoak** urte osoan zehar antolatzen ditu hiria ezagutzeko eta bizitzeko ibilbide eta bisita gidatu desberdinak. Eta turismo-enpresek eta erakundeek antolatzen dituzten bisitei eta jarduerei buruzko informazio guztia lor dezakezu bertan. Gainera Vitoria-Gasteizen kulturarekin, kirolarekin eta aisiarekin lotutako ekintzei buruzko informazioa ere emango dizu.

## TURISMO-BULEGOAK ANTOLATUTAKO BISITA GIDATUAK

### Bisitak Erdi Aroko hirigunera

Penintsulako iparralde osoan ondoen kontserbatzen diren **Erdi Aroko hirigune ederretakoa** du Vitoria-Gasteizek. Historiatik ibilbide batera gonbidatzen zaitugu Erdi Aroko hiriguneko eta harresiko puntu enblematikoenetatik. Familiarekin bazatoz, **haurrentzako bisitak** programatzen dira Erdigune historikoko txoko berezienez gozatzeko.

### 3D bisitak, bidaia bat historian zehar

Ibilbide gidatuak hirigune historikotik, e**rrealitate birtualeko** betaurreko batzuei esker Erdi Aroan hiria nolakoa zen ezagutzeko.

### In situ bisitak

Aste santutan, udan, Gabonetan eta zubietan bisita gidatuak antolatzen dira hiriko **eraikin berezienetako batzuetara**. Aprobetxatu aukera San Bizente Elizako dorrea edo Villasuso jauregia ezagutzeko.

### Kañoetarako bisitak

Erdi Aroko jatorria duten hiriko espazioak. Haien funtzioa etxebizitzetako ur zikinen hustubide izatea zen, gaur egun erdigune historikoko etxadien barnealdean kokatzen diren espazio publikoak dira.



Santa María Katedrala



Erdi Aroko harresia

## Atariara bisitak

Horrela du izena Salburuako Hezegunearen Interpretazio Zentroak, hiria inguratzen duen Eraztun Berdearen ikurra. Ezagutu ezazu bisita honetan. Gainera hezegunetik ibilaldi bat egiteko aukera izango duzu hegaztien behatokietako bateraino parkeko bioaniztasuna behatu ahal izateko.

## Bisitaldi literarioak

Ezagutu Vitoria-Gasteiz protagonista den eleberri eta best-seller-ak hala nola Eva García Sáenz de Urturiren "**Hiri zuriaren isiltasuna**" y "**Uraren Errituak**".

## Bisita inklusiboak

Turismo bulegoak urtean zehar bisita gidatu irisgarri eta inklusiboak antolatzen ditu.

### BESTELAKO BISITA GIDATUAK

## Santa Maria katedralerako eta harresirako bisitak

Paseatu historian zehar "irekita lanak direla eta" katedral batean. Katedralaren sekretuek mundu guztiko historialari eta idazleen inspirazio izan dira, hala nola Ken Follet, Paulo Coelho edo Arturo Pérez Reverte. Erdi Aroko harresitik ibilaldia barne.

## Vitoria-Gasteiz beste ikuspuntu batzuetatik

Hiriko enpresekgai desberdinei buruz antolatzen dituzten ibilbideei, bisitei eta jarduerei esker: historia (kondairako pertsonaiak, ibilbide historikoak), gastronomia (pintxo-ibilbidea, merkatuak, produktu-dastaketak), jasangarritasuna eta natura (ibilbideak bizikletan, Eraztun berdetik, korrika).

**Informazioa:**

**Turismo Bulegoa**
Espainia plaza, 1
Tel. 945 161 598
turismo@vitoria-gasteiz.org
Eta www.vitoria-gasteiz.org/turismo webgunean


Bisitak



# Familiarekin etorri zara?

## Igo trenera

"Gasteiztxo" izeneko gure tren turistikoak hiriko toki xarmangarri guztiak erakusten dizkizu, 45 minutuko ibilbidean (udako denboraldia).

## Museoan jolasean

Hiriko ia museo guztiek, bere instalazioak modu dibertigarri eta ezberdinean ezagutzeko jarduerak eskaintzen dituzte. **Eskatu informazioa Turismo bulegoan Familiako Bisitetarako Artium eta Karten Fournier museoak bisitatzeko.**

## Ezagutu antzokia

Principal Antzokia eta gizarte etxeetako antzoki sareak funtzio bereziak eta kontzertu didaktikoak antolatzen dituzten gaztetxoenentzat urte osoan zehar (baita jaioberrientzat ere).

## Uretara!

Udan, **Gamarrako kirol-guneak** kanpoko igerilekuetako eta jolasteko gune desberdinak irekitzen ditu.

Eta hiritik oso gertu, ezin duzu galdu Ullibarri-Gamboa eta Urrunaga urtegietako inguruneak. Bertan **Landa eta Garaioko parkeak** aurkitzen dira. Bainatzeko girotuta, eta era guztietako zerbitzuekin (piknik gunea, komunak, dutxak, haurrentzako jolas-gunea eta piraguen alokairua).

"Bide Berdetik" Ullibarriko urtegiari bira eman diezaiokezu erraz oinez edo bizikletaz. Baita gurutzatu ere, egurrezko kaitik. **Mendixurreko Parke Ornitologikoan eta Behatokian** uretako hegazti ugari beha ditzakezu.



Udan, garraio zerbitzu erregularra dago Vitoria-Gasteiztik Garaioraino. Informazio Zentroan naturarekin lotutako aktibitateak antolatzen dira.

## Ataria

